

Orain arteko hizlariei Euskadi Irratian egindako elkarrizketak sarean daude

2015/01/30

Urrian Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua hasi genuenetik hainbat aditu eta arituk partekatu dute euren jakintza hilez hileko eskoletan. Hamar hitzaldi izan dira orotara dagoeneko. Hitzaldien ondoren partaide guztien ahotsa jaso du Euskadi Irratiko Tere Beloki kazetariak. Elkarrizketak Euskadi Irratian entzun ahal izan dira, www.eitb.eus webgunean ere bildu dituzte, eta baita webgune honetako Euskadi Irratia atalean ere.

Orain arte izan diren hizlariak: Jon Sarasua, euskal kulturaz; Kukuka dantza eta antzerki eskola; Pilare Baraiazarra eta Patxi Uribarren, Hezkuntzaren eta hizkuntzaren kate begietan atzera; Iñigo Ibarra (Ander Lipus), euskal antzerkigintzaz; Martin Ibarbia eta Unai Ibarbia, euskal ikus-entzunezkoaz; Edorta Jimenez eta Irati Jimenez, transmisioaz; Larraitz Ariznabarreta, exilioaz; Paulo Iztueta, nazio kultural euskaldunaren aurrerabideaz; Mixel Etxekopar, transmisioaz eta Hebentik elkarreaz; eta Joxe Mari Sors eta Gexan Sors, Elkar argitaletxeaz.



Tere Beloki Ander Lipus elkarrizketatzen.